

MATIASEN AMETSA

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 27,5 cm. 32 or. 15 €

CHILDREN'S CHOICE IRA-CBC SARIDUNA
(International Reading Association – Children's Book Council)

Matiasen ametsa (euskara)

ISBN 978-84-7681-755-1. Gaur egungo klasikoak.

El sueño de Matías (gaztelania)

ISBN 978-84-92608-65-2. Clásicos contemporáneos.

O soño de Matías (galegoa)

ISBN 978-84-8464-794-2. Tras os montes.

El somni d'en Mateu (katalana)

ISBN 978-84-8464-988-5. Clàssics contemporanis.



O sonho de Mateus (portugesia)

ISBN 978-989-8205-82-7. Clássicos contemporâneos.

Saguak oso pobreak ziren, baina Matias zen haien itxaropena. Handitzean sendagilea izan zitekeen, agian. Eta orduan gazta parmesanoa izango lukete gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko. Baina Matiasi zer izan nahi zuen galdetzen ziotenean, erantzuten zuen:
«Ez dakit... Mundua ikusi nahi dut».

Artea, mundu osoko kulturaren eta jakintzaren erakusleho gisa; sorkuntzaren eta askatasunaren adierazpen gisa; errealitatea eraldatzeko bide gisa. Museo batera egindako lehen bisitak bizitza aldatu dio Matiasi, eta bere etorkizuna bideratzen lagundu dio: ganbara apal batean bizi izatetik bidaiatzera eta bere margolanak nazioarteko prestigioiko aretoetan erakustera.

Leo Lionnik zenbait estilota hurbiltzen gaitu, potreta historikoen eta izadi hilen klasizismotik inpresionismo, kubismo edo surrealismoaren tankerako arte-abangoardietara. «Matiasen ametsa» haurrak hezkuntza estetikoan eta formakoloreen interpretazioan abiarazteko album bat da. Fantasiak betetako istorio hurbil baten bidez, eta collage erako aberastasun kromatikoko handiko ilustrazio deskriptiboen bitartez, egileak bere bi grina nagusiak partekatzen ditu irakurleekin: artea eta musika, haurtzaroko markatu baitzioten eta gaur eguneko haur literaturako erreferente nagusietariko bat bihurtu baitzuten.



- **Gala:** artea.
- **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** haur literaturako klasikoak; margolaritza-estiloak; museoak; honako hauen egile berarena: «Frederick», «Kornelio», «Alex eta sagu mekanikoa», «Igeritz», «Urdin Txiki eta Hori Txiki», «Munduko etxerik handiena», «Arrarik arra», «Colores», «Números».
- **Liburuaren aurrerapena:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/matiasen-ametsa-eusk>

Leo Lionni

(Amsterdam, Holanda, 1910-Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni arte-giroan hazi zen –haren ama operakantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritza-zale handia– eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian doktoratu baitzen. 1931n Milanen bizitzen hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoaekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioan eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista mailako ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionni-k berak noizbait esan zuenez, “Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimenak adierazten ditu beti”. Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabeen sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiz egindako istorio baten bidez bilobak entretenitzea otu zitzaion. Halaxe sortu zen “Urdin Txiki eta Hori Txiki”, eta haren atzetik mundu osoko adituek txalotutako 40 obra baino gehiago. Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituegatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.

<http://leolionni.wordpress.com>

www. **kalandraka**.com
comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela**.com
ctxca
soltxate@pamiela.com